

Betetze Penaleko Politika

ARRISKU PENALEN PREBENTZIOKO ESKULIBURUA

SARRERA

Guggenheim Bilbao Museoaren (aurrerantzean “GBM”) Betetze Politika Orokorra GBMk compliance edo betetze arloan hartutako konpromisoak jasotzen ditu, eta haren Arrisku Penalen Prebentzioko Betetze Programan (aurrerantzean “Betetze Programa”) kokatzen da, zeinaren parte baita.

Politika hau Arrisku Penalen Prebentzioko Eskuliburuan jasotako funtsezko alderdien laburpena da, eta eskuliburua Betetze Programaren parte da.

GBMk bere lan-esparruko jurisdikzio ezberdinetan ezarritako betebeharren eta arauen bai letrari bai espirituari erreparatzen die, baita borondatez onartu dituen jurisdikzioetan ezarritakoenei ere. Bereziki, aplikatu beharreko legeria penala betetzeko konpromisoa hartzen du GBMk.

APLIKAZIO-EREMUA

SUBJEKTIBOA - GBM osatzen duten sozietate guztietako langile, zuzendari eta administratzaile orori (“Obligaziodunak” deritzenei) aplikatu behar zaie Politika orokor hau. Ondorio horietarako, honako erakunde hauek hartuko dira “GBM” gisa:

- (i) Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioa (FMGB)
- (ii) Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao, S.L.
- (iii) Inmobiliaria Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao, S.L.

GBMrekiko negozio-harremanak dituzten hirugarrenei dagokienez (hornitzaileak, adibidez), GBMren betetze-ereduarekin bat datorren compliance eredu propioa betetzen dutela ziurtatzen duen dokumentazioa aztertuko du GBMk eta, informazio hori falta izatekotan, haien eskuera jarriko du Politika honen kopia bat harekin bat egin dezaten.

XEDEA – Goian deskribatutako erakunde bakoitzarentzat erantzukizun penala sor dezaketen jarduerak honako hauek dira:

- (i) Guggenheim Bilbao Museoaren Fundazioa: Guggenheim Bilbao Museoa kudeatzea eta zuzentzea artelanak ikusgai jartzeko jardura nagusian, baita Museoaren Bildumaren kontserbazioa bermatzea eta eduki horiek publiko guztiei helaraztea ere, helburu horietarako beharrezkoak diren jardura guztiak eginez. Denda-liburudendaren eta entzungelaren jardura ere barne hartzen ditu.
- (ii) Tenedora Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao, S.L.: Guggenheim Bilbao Museoaren Bilduma osatzen duten artelanak eskuratzea eta haien jabetza mantentzea; bilduma hori FMGBri epe luzera utzia da jendaurrean erakusteko.

- (iii) Inmobiliaria Museo de Arte Moderno y Contemporáneo de Bilbao, S.L.: Guggenheim Bilbao Museoaren eraikinaren, kanpoko biltegiaren eta bien kokaleku diren lursailen jabetza izatea.

HELBURUAK

GBMk honako helburu hauek ezartzen ditu compliance arloan:

- Zintzotasunaren eta bai arauetik bai estandar etikoetik errespetuaren kultura sustatzea, arrisku edo ez-betetzeen aurrean azkar erantzuteko aukera emango duena, eta GBMren interesak ez ezik, interes-taldeen beharrak eta itxaropenak ere kontuan hartuko dituen.
- Arauak eta estandar etikoak errespetatzen dituen jokabidea mantentzea.
- Betetze-eredu bat garatzea baterako ikuspegia baliatuta, eta hura eraginkortasunez ezartzea.
- Zero tolerantziaren eta delituak egiteko debekuaren filosofia ezartzea, Betetze Politika honetan xedatutakoaren eta barne-politika eta -prozeduren aurkako jokabideak saihestea eta, beharrezkoa izanez gero, indarrean dagoen lan-araudiak babestutako diziplina-, zuzenketa- edo zehapen-ekintzak aplikatzea.
- Edozein delitu-egitate mota egiteari erabateko gaitzespen irmoa erakustea eta erakundeari aplikatu dakiokeen legeria penala bete dadila eskatzea.
- Betetze Programaren inguruko prestakuntza eskaintzea eta haren berri ematea erakundeoko pertsoneri, administratzaileak barne, baita entitatearekin harremana duten hirugarrenei ere (hala badagokio), beren jardueran betetzeko beharrezkoak diren arauak eta konpromisoak ezagutu eta uler ditzaten.
- Compliance delakoari buruzko edozein salaketa barnetik komunikatzeko beharra sustatzea, konfidentzialtasuna eta kalterik eza bermatuta direla.
- Betetze Programa etengabe berrikusi eta eguneratzea, jardunbide egokiarekin bat datorrela ziurtatzeko.
- Betetze Programaren egitura-elementuak garatzea eta betetzea. Elementu horiek jarraian azaltzen dira.

BETETZE-PROGRAMA. EGITURA-ELEMENTUAK

GBMk kontrol egokiaren printzipioan oinarritutako Betetze Programa bat ezarri du, politika honetan deskribatutako konpromisoak betetzera bideratua, eta honako elementu hauetan laburbiltzen dena:

- Lidergoa eta konpromisoa. - Compliance arloko erantzukizuna, oro har, GBMko kide guztiei dagokie (nori bere jardun-maila espezifikoa) eta, bereziki, goi-zuzendaritzako eta gobernu-organoko ordezkariari, haiek baitute erakundearen egokiro kudeatzeko ardura: Zuzendaritza Batzordea eta Batzorde Exekutiboa, alegia.
- Arrisku penalaren ebaluazioa. - GBMk jarraitzen duen ebaluazio-prozesuak bere gain hartzen ditu GBMk arrazoiz aurreratu ditzakeen arrisku penalaren identifikazioa, analisia eta balorazioa. Ebaluazio horren bidez identifikatu da prebenitu beharreko delituak zein jardueraren eremutan gerta daitezkeen.
- Protokoloak eta kontrolak. - GBMk bere gain hartutako konpromisoak erakundearen barne-araudian daude jasota. Barne-araudi hori osatzen dute Kode Etikoa eta Jardunbide Egokien Kodeak, Jokabide Arauak, baita araudia eraginkortasunez ezartzea ahalbidetu eta errazten duten gainerako arau, prozedura eta kontrolek ere.
- Komunikazio-ekintzak. - GBMk barne- zein kanpo-komunikazioak egiten ditu, Betetze Programaren eraginkortasuna errazte aldera.
- Prestakuntza eta kontzientziazioa. - Arrisku penalaren eraginpean egoteko aukera gehien duten erakundeko kideak arrisku horietaz behar bezala, eraginkortasunez eta proportzionalki jabetu daitezela eta haien inguruko prestakuntza jaso dezatela sustatzen du GBMk, arrisku horiek saihesten eta detektatzen jakin dezaten, edo compliance penalaren kudeaketa-sistemaren arabera kudeatzen.
- Salaketa-kanala. - GBMk badu prozedura egoki bat, Jokabide Kodearen eta gainerako arau eta politika korporatiboen inguruko kontsultak eta haien balizko urraketak komunikatzeko aukera ematen duena.
- Diziiplina-sistema. - GBMk diziiplina-sistema bat du, Betetze Programak ezartzen dituen neurriak ez betetzea zigortzen duena.
- Zaintza- eta kontrol-organoa. - GBMk ekiteko eta kontrolatzeko botere autonomoa duen barne-organoa bat izendatu du, eta haren esku utzi du Betetze Programaren funtzionamendua eta betetze-maila gainbegiratzea. Organo horrek —Arrisku Penalak Prebenitzeko Batzordea ere deitua— agintea eta independentzia du bere eginkizunak betetzeko.
- Berrikuspena eta etengabeko hobekuntza. - GBMren Betetze Programa elementu bizia da, legeetan nahiz antolamenduan gerta daitezkeen aldaketetara egokitzeko aukera ematen duena. Horretarako, aldizka egiaztatzen da programa, eta aldaketak egiten zaizkio behar denean, bere xedapenetan arau-hauste nabarmenak agerian geratzen direnean, edo antolamenduan, kontrol-egituraren edo garatutako jardueraren aldaketak gertatzen direnean.